

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua funtziona dezan ataletan bana dezakegu jarduera desberdinak:

1. Beharren azterketak: Kartelak non eta nola kokatuko diren azterketa bat egin behar da ikastetxean. Azterketa honi esker espazioak aztertzen ditugu, erabiltzaileen beharrak ikasten ditugu eta ingurunea ulertzen jakiten dugu, hau da, argitasuna edota karteletara nola helduko diren ikasiko da.
2. Diseinuaren garapena: Kasu honetan, kartelak ikusgai eta ukigai izateko diseinua egin beharra dago. Diseinu honetan estetika eta funtzionaltasuna bilatzen da. Gainera, gure diseinuan irisgarritasuna eta inklusioa bilatzen dugu guztiontzako eskuragarri izateko.
3. Braile hizkuntzara egokitu: Ikastetxean dauden kartel guztiak brailera itzuli behar dira, horretarako egokitze prozesu bat pasa behar da.
4. Kartelak sortu: Erabiliko ditugun materialak erosi behar ditugu eta ondoren karteletan braile hizkuntza gehitzeko makinak erosi behar dira (3D imprimagailua edota braile imprimagailua). Honek, produkzio-prozesu eraginkorra eta erabilgarria izan dadin.
5. Instalazioa: Kartelak jartzeko tokiak hautatzea eta behar bezala instalatzea. Leku horiek sarbide errazekoak izan behar dute erabiltzaileentzat, eta kartelen altuera eta kokapena egokitu egin behar dira, irisgarritasun-estandarrak bete ditzaten.
6. Azken ikustatzeak: Instalatutako kartelen funtzionaltasuna ziurtatzea eta etorkizuneko mantentze-plan bat egitea. Horren barruan sartzen da aldizkako ikuskapenak egitea, kartelak eguneratzea beharrezkoa izanez gero, eta erabiltzaileen iritziak jasotzea zerbitzua hobetzeko.

